

2016-17 Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso 2016-17

ikastetxea: <i>centro:</i>	IES URIBE KOSTA BHI	kodea: <i>código:</i>	015143
etapa: <i>etapa:</i>	D B H	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	1.MAILA
arloa/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	GEOGRAFIA ETA HISTORIA		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>materias integradas/ áreas</i>	GEOGRAFIA ETA HISTORIA		
diziplina barruko oinarrizko kompetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	Hizkuntza eta Literatura arloak, IKT, Ekonomia eta Filosofia irakasgaiak		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	SERAFIN DIAZ	ikasturtea: <i>curso:</i>	2016/217

Honako hauek dira oinarrizko zehar-kompetentziak:

- **Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia**
Hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala modu osagarrian erabiltzea, ganoraz eta egoki komunikatu ahal izateko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan.
- **Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia**
Ikasteko eta lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea, eta ikasitakoa mobilizatzea eta beste testuinguru eta egoera batzuetara eramatea, norberaren ikaskuntza modu autonomoan antolatzeke.
- **Elkarbizitzarako kompetentzia**
Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasunez parte hartzea, eta norberari aitortutako eskubideak eta betebeharrak besteri aitortzea, norberaren zein guztion ongirako.
- **Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia**
Ekimena izatea eta ekite-prozesua erabakitasunez eta eraginkortasunez kudeatzea testuinguru eta egoera pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan, ideiak ekintza bihurtzeko.
- **Izaten ikasteko kompetentzia**
Bizitzan zehar agertzen diren sentimendu, pentsamendu eta ekintza pertsonalez gogoeta egitea eta haiek sendotzea edo egokitzea, haien gaineko balorazioaren arabera, bere burua etengabe hobetuz pertsona osorik errealizatzeko.

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
<p>HELBURUAK:</p> <p>GEOGRAFIA ETA HISTORIA.</p> <p>ETAPAKO HELBURUAK.</p> <p>Hauek dira etapako helburuak Geografia eta Historia ikasgairako:</p> <p>1) Pertsona bakarrak eta konplexuak direla ohartzea, eta zer gaitasun eta muga dituzten jakitea. Orobat, ohartzea zer kultura-ezaugarri direla-eta diren euskal gizarteko kide, beste talde batzuetako kide izateko aukera eragotzi gabe. Horren helburua da nork bere nortasun zehaztua eta onartua izatea, gizartean modu aktiboan eta konpromisoz parte hartzeko.</p> <p>2) Ingurune fisikoaren bereizgarri diren oinarrizko elementuak ingurune hurbiletik abiatuz identifikatzea eta kokatzea zenbait eskalatan eta elementu horien elkarreraginei erreparatzea, ulertzeko gizakion bizitza nola baldintzatzen duten eta, aldi berean, gizakiak nola eraldatzen dituen. Horren helburua da gizakiaren ekintzak zer gizarte-arazo eta ingurumen-arazo sortzen dituen ikustea eta horretaz kontziente izatea.</p>	<p>1.. Zehatz-mehats eta zorroztasunez interpretatzea ezaugarri eta eskala desberdineko proiektzio kartografikoak. Koordenatuak erabilia mapetan tokiak edo espazioak kokatzea; legenda eta ikurren bidez irudikatutako espazioei buruzko informazioa lortzea, eta ondorioak ahoz edo idatziz jakinaraztea.</p> <p>1.1. Ea ezagutzen dituen meridiano eta paralelo nagusiak esferetan, planisferioetan eta mapetan.</p> <p>1.2. Ea toki jakin bat eta zenbait gertaera geografiko kokatzen dakien hainbat eskalatako atlasetan eta mapetan, eta, hala dagokionean, koordenatu-sistema erabiltzen ere bai.</p> <p>1.3. Ea geografiako eta historiako gaiet buruzko informazio garrantzitsuena biltzen duen eta azaltzen duen, ahoz edo idatziz, mapak, planoak eta horietan adierazten diren zeinu konbentzionalak abiapuntu hartuta.</p> <p>1.4. Ea distantziak kalkulatu dituen eta orientazioa lantzen duen, zenbait mapa eta plano erabilia.</p> <p>1.5. Ea alderatzen eta deskribatzen dituen, ahoz edo idatziz, gaikako mapa desberdinen artean hauteman daitezkeen korrelazio batzuk.</p> <p>2.-Zenbait eremutako ingurune fisikoa osatzen duten oinarrizko elementuak mapan kokatzea, Euskal Herriko abiapuntu dela ozeanoak eta itsasoak, kontinenteak, erliebe-unitateak eta ibaiak), eta leku horietako ezaugarri nagusiak aztertzea.</p> <p>2.1. Ea ezagutzen eta kokatzen dituen Euskal Herriko mapan Bizkaiko golkoa, erliebe-unitate nagusiak eta ibai nagusiak.</p> <p>2.2. Ea ezagutzen eta kokatzen dituen Iberiar penintsulako mapan hura inguratzen duten ozeanoak eta itsasoak, erliebe-unitate nagusiak eta ibai nagusiak.</p> <p>2.3. Ea ezagutzen eta kokatzen dituen munduko ozeanoak, kontinenteak eta erliebe-unitate eta ibai nagusiak esferetan, planisferioetan eta mapetan.</p> <p>2.4. Ea adierazten dituen zenbait ezaugarri fisiko (erliebe-unitateena, batik bat) mapa jakinak erabilia (sestra-kurbak, profil topografikoak...).</p> <p>3.- Zenbait prozedura erabilia, paisaia nagusiak osatzen dituzten ezaugarri fisiko nabarmenenak alderatzea eta laburbiltzea (erliebea, klima, urak eta</p>

3) Identifikatzea zein izan diren Euskal Herriarentzat gertaera eta prozesu historiko garrantzitsuenak, direla tokikoak, direla esparru zabalagokoak, eta denboran eta espazioan kokatzea. Horren helburua da gizateriaren bilakaeraren ikuspegi propioa eta globala izatea eta aldaketak eragiteko gaitasunari buruzko kontzientzia kritikoa izatea.

4) Datu historikoak biltzea, zenbait irizpide erabiliz: denboran orientatzekoak (iragana, oraina eta etorkizuna); denbora-posizio erlatiboak (segidakoak, aldiberekoak, diakronia, sinkronia); iraupena (faktikoa; koiunturala; egiturazkoa; iraupen laburrekoa, ertainekoa edo luzekoa); denbora-neurriak (denbora-unitatea, denbora eta kronologia historikoa). Horren helburua da gizartearen bilakaera historikoa ordenatu eta sintetizatzea.

elementu biogeografikoak), Euskal Herriari eta Espainiari garrantzi berezia emanda; horiek espazioan kokatzea eta giza taldeei ematen dieten aukeren erlazioa egitea.

3.1.- Ea ezagutzen eta deskribatzen dituen klimaren elementuak (tenperatura, prezipitazioak, presio atmosferikoa...), eta Euskal Herriko, Iberiar penintsulako eta munduko klima guztien ezaugarriak zehazteko erabiltzen dituen, eta baita gizakiaren bizitzaren zein alderdiri eragiten dioten edo eragin diezaioketen adierazteko ere.

3.2. Ea dakien zein diren klimaren faktoreak (altitudea, latitudea, kontinentaltasuna, erliebea...), eta Euskal Herriko, Espainiako eta planetako klimak azaltzeko erabiltzen dituen.

3.3. Ea interpretatzen dituen espazio jakin baten klima-ezaugarriak, klimogramak erabilia.

3.4. Ea laburbiltzen dituen klimen eta paisaia naturalen oinarritzko ezaugarriak, koadro sinoptikoak erabilia.

4. Ingurune naturalaren gaineko giza ekintzaren eragina antzematea eta zenbait adibide azaltzea, debateak antolatzea kausak eta ondorioak aztertzeke, eta horiek murrizteko (tokian-tokian zein oro har) hartu behar liratekeen neurriak eta jarrerak adieraztea.

4.1. Ea erreparatzen dien paisaia jakinetan izandako aldaketa prozesuak erakusten dituzten irudiei, eta ea lotzen dituen horiek eragile izan dituzten giza faktoreekin (nekazaritza-ustiapenak, industria-jarduerak, komunikabide-sareak, turismoaren garapena...).

4.2. Ea ohartzen den Euskal Herrian natura kaltetzen duten zenbait arazo zehatzez, eta horiek eragiten dituzten kausez.

4.3. Ea antzematen dituen zenbait ohiturak ingurumenean eragiten dituzten arazoak eta ondorio negatiboak, batez ere bere ohiturei eta inguruan dituen ohiturei kontsumoarekin zerikusia dutenei, batik bat erreparatuta, eta ea adierazten duen proposamenik horiek zuzentzeko.

4.4. Ea biltzen eta laburbiltzen duen komunikabideetako informaziorik (prentsa, sarea...) deskribatutako ingurumen-arazo bakoitzerako dauden alternatibei buruz

5. Kronologia-unitateak eta konbentzioak erabiltzea, denbora historikoa eta bilakaera- eta aldaketa-nozioak grafikoki adierazteko, eta, gainera, aldi historikoei orokorrean aplikatzeko eta bereziki

5) Ondare naturala, kulturala, linguistikoa, artistikoa, historikoa eta soziala, norberarena zein bestearena, aintzat hartu eta errespetatzea, eta norbanakoek zein herriek beren identitatea izateko duten eskubidetzat jotzea. Eta hura babestu, kontserbatu eta hobetzeak dakarren erantzukizuna onartzea, nork bere esparrutik gizateriaren garapenean laguntzeko, dela modu indibidualean dela modu kolektiboan.

6) Gizarte demokratikoez zer antolaketa eta funtzionamendu duten jakitea, eta haien oinarri diren oinarrizko balioak eta printzipioak zein diren jakitea. Eta giza eskubideak erreferente unibertsal moduan erabiltzea norberaren bizitzako eta gizarte-bizitzako ekintzei eta egoerei buruzko iritziak sortzeko. Orobat, eskubideak urratuta dituzten edo beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak ez dituzten herriekin, gizarte-taldeekin eta pertsonekin solidarioak izatea eta

Euskal Herriko historiaurreko eta antzinako historiako gertaerak eta prozesuei aplikatzeko, baita orokorrean aplikatzeko ere.

5.1. Ea ezagutzen dituen historiaren garai eta aldi kronologiko nagusiak, eta historiaurreko prozesuak; eta ea horiek

kronologiaren arabera ordenatzen dituen

5.2. Ea ikasten eta erabiltzen dituen kronologia-unitateak (milurtekoak, mendeak, hamarkadak, urteak...); ea lotzen dituen urte jakinak dagozkien mendeekin; Kristo aurrekoak eta ondorengoak bereizten dituen, eta denbora-aldien, prozesuen, gertaera historikoen eta historiaurreko gertaeren iraupenari buruzko kalkuluak behar bezala egiten dituen.

5.3. Ea egiten duen ardatz kronologikoa gidoi batean adierazitako urratsei jarraituta; halaber, ea dakien zenbait denbora-unitate kokatzen (milurtekoak, mendeak, hamarkadak...), 0 urtea adierazten eta Kristo aurreko eta ondorengo garaiak bereizten.

5.4. Ea kokatzen dituen ardatz kronologikoan Euskal Herriko, Iberiar penintsulako eta munduko historiaurreko eta antzinako historiako zenbait gertaera, prozesu eta aldi esanguratsu.

5.5. Ea dakien denbora-epe edo zibilizazio jakin batean izandako zenbait gertaera eta prozesu (sozialak, ekonomikoak, teknologikoak, politiko-militarrak, artistikoak...) friso kronologiko batean irudikatzen eta haien arteko nolabaiteko lotura azaltzen, eta ea ezagutzen dituen denboran bere horretan irauten dutenak eta aldatu direnak.

6. Iraultza neolitikoak gizadiaren bilakaeran eragin zituen aldaketak ezagutzea, eta zenbait laborpen-prozedura erabilia horiek adieraztea, eta izan zuen eragina eta eragin zituen ondorioak balioestea, gizarte harrapariak osatzen zituzten elementuekin alderatzean.

6.1. Ea dakien egiten hominizazio-prozesuari buruzko eskema-laborpena.

6.2. Ea galderarik egiten dion bere buruari gizarte harraparien bizimoduaren alderdi batzuei buruz (etxebizitza, jantziak, elikagaiak, tresnak, giza taldeak...)

6.3. Ea galderarik egiten dion bere buruari gizarte neolitikoen bizimoduaren alderdi batzuei buruz (etxebizitza, jantziak, elikagaiak, tresnak, giza taldeak...)

jarrera eta egoera baztertzailak eta bidegabeak salatzea. Horren helburua da gizarte demokratikoetan modu kontziente, arduratsu eta kritikoa parte hartzea.

7) Europar Batasunaren antolakuntza politikoaren eta erakundeen funtzionamenduaren berri izatea, jakitea funtsezko zer balio eta printzipio dituzten oinarri, eta haren gabeziekiko kritiko izatea, arrazoituz. Helburua da ulertzea Europar Batasuna Europako herrien, estatuen eta eskualdeen harremanetarako eta parte-hartzerako eremua dela, eta beharrezkoa dela hobeto funtzionatzea.

8) Gaur egungo gizartearen arazoak zein diren jakitea, haien jatorri historiko-sozialak aztertzea, eta errealitateak eta egoerak aztertzea. Horren guztiaren helburua da haiekiko iritzi pertsonal kritikoa eta arrazoitua izatea, eta ekintza alternatibo eraginkorrak sustatzea eta abian jartzea, zenbait eskalatan, pertsonen arteko eta gizarte-taldearen arteko harremanak hobetzeko eta baliabide naturalak arduraz erabiltzeko.

6.4. Ea dakien kokatzen Euskal Herriko eta Iberiar penintsulako historiaurreko aztarna nagusiak.

7. Talde lanean arituz, lehendabiziko zibilizazio historikoetako eta greziar zibilizazioko zenbait ezaugarri nabarmen bereiztea, greziar zibilizazioko jatorrizko elementuak ezagutzea eta, zenbait euskarri erabilia (digitala barne) ondorioak adieraztea.

7.1. Ea kokatzen dituen Mesopotamiako, antzinako Egiptoko eta Greziako zibilizazioen geografia-eremuak mapetan; horien zenbait ezaugarri adierazten dituen, eta ezaugarri horiek garapenean izan zuten eragina azaltzen duen.

7.2. Ea kokatzen dakien ardatz kronologikoetan Mesopotamiako, antzinako Egiptoko eta Greziako zibilizazioen denbora aldiak; horretan, ea gai den zenbait gertaera historiko garrantzitsu adierazteko

7.3. Ea ezagutzen dituen Mesopotamiako, antzinako Egiptoko eta Greziako zibilizazioetako artelanak; eta ea gai den haien

zenbait ezaugarri deskribatzeko, alderatzeko eta utzi diguten arte-ondarea balioesteko.

8. Zibilizazio erromatarraren antolamendu politikoaren, ekonomikoaren eta sozialaren ezaugarriak bereiztea, eta Euskal Herrian eta Hispanian erromanizazioak izan duen garrantzia eta erromatarrek gure herrialdean utzitako ondarea balioestea.

8.1. Ea mapetan kokatzen dakien zibilizazio erromatarra non sortu eta nondik barrena hedatu zen —eremu geografikoa—; ea dakien friso kronologiko batean gertaera eta denbora-aldi garrantzitsuenak adierazten.

8.2. Ea biltzen duen informaziorik zibilizazio erromatarraren ezaugarri nagusiei buruz (eguneroko bizimodua, gizartea, ekonomia, politika...), eta deskribatzen duen.

8.3. Ea aztertzen dituen Erromatar Inperioa Europa osoan finkatzea eragin zuten kausak, eta baita ondoren go gainbehera eragin zutenak ere.

8.4. Ea gainera ezagutzen dituen zibilizazio erromatarrari dagozkion artelanak.

9. Lehendabiziko zibilizazio historikoek (Egiptoko, Mesopotamiako, Greziako eta erromatar

9) Gizarte-fenomenoak zuzentzen dituzten prozesuak eta mekanismoak zein diren jakitea, eta gertaera sozialen, politikoen, ekonomikoen eta kulturalen arteko loturak aztertzea. Ezagutza hori gaur egungo gizartearen bilakaera azaltzen duten kausak askotarikoak direla ulertzeko oinarria izango da, eta Historiaren ikuspegi arrazoitua eta kritikoa edukitzeko. Azken helburua herritar moduan gizartea hobetzeko ekintzak abian jartzea izango da.

10) Gizarte-zientzien bereizgarri diren kontzeptuzko baliabideak, teknikak eta lan-prozedurak aplikatzea, eta arloko lexikoa erabiltzea zehatz eta zorrotz. Horrenbestez, lan monografiko txikiak eta ikerketak egingo dira, banaka zein taldeka, Euskal Herriaren, hurbileko eremuen eta munduaren jatorriaz eta bilakaera historikoaz ikertzeko.

11) Talde-lana egitea eta eztabaidetan eta debateetan parte hartzea jarrera konstruktiboa, irekia, arduratsua, kritikoa eta tolerantzia izanda eta iritziak eta proposamenak behar bezala arrazoituta. Orobat, desadostasunak eta elkarrizketa gizakien ateko gatazkak eta gatazka sozialak konpontzeko bidea dela ikusi beharko dute, eta taldeko lan-teknikak landuko dira, bai sormenezko lorpen komun bat izateko, bai eta pertsonaren eta taldearen elkarrekintza nagusi den gizartean egoki txertatzeko ere.

zibilizazioak) Mendebaldeko gure zibilizazioari egindako ekarpenak deskribatzea.

9.1. Ea ezagutzen dituen lehendabiziko zibilizazioek Mendebaldeko gure zibilizazioari egindako ekarpenak, greziar eta erromatar zibilizazioenak bereziki.

9.2. Ea Euskal Herriko eta Espainiako aztarna erromatar jakinik gainera deskribatzeko gai den

10. Informazio-iturri idatzietatik geografia- edo historia-edukiak kritikoki aztertzea, eta horien bidez lortutako informazioa behar bezala idatzita jakinaraztea.

10.1. Ea informazio-iturriak jatorriaren eta motaren arabera sailkatzen dituen.

10.2. Ea ezagutzen duen indusketa arkeologikoetan oinarritutako informaziorik, jakinik hura dela historiaurrea lantzeko iturri nagusia.

10.3. Ea informazio egokia aukeratzen duen eta ideia nagusiak biltzen dituen, interneten bidez.

10.4. Ea irakurtzen eta ulertzen dituen testu idatziak, haien mailarako egokituak.

10.9. Ea lortutako informazioa zenbait euskarri —besteak beste, euskarri digitala— erabilia komunikatzen duen, laburpen, eskema eta koadroa.

12) Informazio geografikoa eta historikoa lortzea. Horretarako, ahozko informazioa, informazio grafikoa, ikono bidezkoa, estatistikoa eta kartografikoa planifikatu, aukeratu eta erlazionatu behar dute (informazioa hainbat iturritatik lortuko dute, komunikabideak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak barne). Informazio hori laburbildu egingo dute, eta lortutako emaitzak besteei modu antolatuan eta ulergarrian azaltzen jakin behar dute.

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila:

1. multzoa. Ikasgai guztietan eta ikasgai honetako eduki multzoetan komunak diren oinarritzko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak daude.
2. multzoa. Lurra eta ingurune naturalak: Gizakiaren ekintzak ingurune naturaletan.
3. multzoa. Iragan historikoa. Historiaurreko gizarteak, lehen zibilizazioak eta Antzinaroa.
4. multzoa. Kultura-adierazpenak.

1go. EBALUAZIOA:

1. Lurra eta haren irudikapena
2. Lurreko erliebea
3. Urak
4. Klima

3 ordu astean (12 aste)

2. EBALUAZIOA:

5. Lurreko paiasaiak
6. Kontinenteen atlasak
7. Espainaren eta Euskadiren azterketa fisikoa
8. Historiaurrea

3 ordu astean (12 aste)

3. EBALUAZIOA

9. Ibaietako zibilizazioak: Mesopotamia eta Egipto
10. Greziako zibilizazioa
11. Erromako zibilizazioa
12. Espainako lurraldea eta euskal lurraldea Antzinaroan

3 ordu astean (12 aste)

ARAZO-EGOERA

- **HIZTEGI DIGITALA EGIN**
 - **GOOGLE SITE BAT OSATU (IKT arloa landuz)**
 - **IKAS KOOPERATIBO METODOLOGIA ERABILIZ**

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

- Gaiari buruzko ahozko sarrera; edukiak aurkeztu baino lehen inguruko kontzeptuak arakatuko dira. Irakurketa ulergarria lantzerakoan, hiztegi historiko, soziologiko eta artistiko egingo da, orain arte landu gabe dagoenarekin
- Ulermena eta sintesia lantzeko hainbat ekintza jorratuko dira, eta hori lortzeko azpimarraketak eta eskemen elaborazioak garrantzi handia hartuko dute.
- Ikasgai bereko prozeduraren ariketak landuko dira
- Adinari egokitutako testuei buruzko iruzkinak egingo dira
- Geografiako grafikoei dagokionez, interpretazio jarduerak eta haien lanketa egingo dira.
- Gaien arabera, talde txikietan zein handiagoetan antolatuko da glasea. Ahaztu gabe, autonomiak eta lan pertsonalak ere, garrantzia handia hartuko dutela.
- Elkarrekiko laguntza-taldeak antolatuko dira
- Debateak egingo dira
- IKT eta beste ikus-entzunezko teknikak ohikoak izango dira ikasgelan (Google Siteak eta Classroom besteak beste)
- Hainbat atazatan lan kooperatiboa erabiliko da
- Irakurmena lantzeko informatikako artikulua aztertuko ditugu. Artikuluen ulermena lantzeko hitz teknikoak, idea nagusiak eta laburpena besteak beste eskatuz. Baita haien iritzia ere, honela ahozmena garatuz.
- Entzumena garatzeko, bideoak, irakaslearen azalpaneak eta antzekoak entzun eta gero laburtzea edo galderak erantzuteko ariketak jorratuko dira.
- Ahozmena lantzeko, aurkezpenak, artikulua eta eztabaidak landuko dira.
- Gure Hobekuntza Planean eta Hizkuntza Proiektuan adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira. Ataza horiek prestatzeko formakuntza lan saio batzuk antolatuko dira eta bertan landutakoa 3.ebaluaketan zehar ikasgeletan gauzatuko da

BALIABIDEAK

Baliabide analogikoak

- Testu liburua “Geografia eta Historia” Zubia Santillana argitaletxekoa
- Beste batzuk: “Geografiako atlasa” Santillana Zubia.

Baliabide digitalak

- Irakaslearen Google Sitea : [GIZARTE DBHI](#)
- Informatika tresnak; power point, webquest, internet, denbora lerroak
- Institutuko IKT baliabideak gelako ordenagailua zein proiektorea erabiliko dira saio gehienetan.
- Google apps-ek eskaintako tresnak:: Clasroom, drive, calendar, e-mailak, google picture, youtube..... Aipam

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
<p>EBALUATZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK,</p> <ul style="list-style-type: none"> • Behaketa zuzena • Ahozko probak • Idatzizko probak • Arloko koadernoak • Classroomeko lanak • Lan taldeak 	<p>KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Azterketak %70a (edukien kontrol probak): 7 puntu <ul style="list-style-type: none"> ○ -Bataz bestekoa egiteko, gutxienez 3,5 atera behar da • Lanak eta eguneroko jarrera: 3 puntu (%30) <ul style="list-style-type: none"> ○ Puntu 1: Koadernoak (eguneroko lan ardura, azalpenen eskemak eta atazak) ○ Puntu 1: Classroomen egindako Lan zehatzak ○ Puntu 1 : Klaseko jarrera (zuzeneko behaketa, adimena, arauak errespetatzea,)
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisisa, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].</p>	

CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [*medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...*].

7.- BERRESKURATZEKO SISTEMA

- Ebaluazio bakoitza egin eta gero, gaituta ez dagoen atala (azterketak eta lan zehatzak) berreskuratu ahal izango da epe labur batean. Jarrera, koaderno edota etxerako lanak egiteko ohitura izango balira berreskuratu behar dena hurrengo ebaluazioan zehar berreskuratuko luke. Ez da ebaluazioa gaitutako atal guztiak berreskuratu arte.
- Berreskurapena gaitutuz gero ebaluazio horretako nota 5 (nahikoa) izango da.
- Bi ebaluazio suspendituz gero, derrigorrezkoa izango da ez ohiko deialdira aurkeztea.
- Kurtsoaren amaieran, berreskuratzeko ebaluazioen bat geratzen bazaie, berriro izango dute berreskuratzeko aukera.
- Ez ohiko deialdian irakasgaia gaitutu ez duenak osorik berreskuratu beharko du.

OHARRAK / OBSERVACIONES